



3. BELAUNALDIAK

** Azpitalde honetako hainbat proposamen errepikatu egiten dira, adinari atentzio berezia jarrita aztertu baitira.*

<p>Haur eta nerabeak</p>	<p>TXUPINA: haurren txupina haientzat bereziki karakterizatu behar da, haurren festaren hasiera gisara. Mantentzea egokia da, baldin eta hau ondo egiten den (bestela bi txupinazo egoteak ez du zentzu askorik). Festeren hasiera gisara, potentzia behar du izan.</p> <p>BARRAKAK: egun batetan prezioa merkeagoa izatea ondo legoke, jende gehiago mugituko lukeelako horrek.</p>
<p>Gazteak</p>	<p>TALDEKAKO KIROL TXAPELKETAK eta LEHIAKETAK: gazte koadrilek parte hartzea sustatzeko, horrelako txapelketa eta kirol erakustaldiak sustatu behar dira: saskibaloia 3x3, futbolin erraldoiak,... Haur, gazte, heldu eta familiek parte hartuko lukete hemen. Ostadarrek beste urteetan antolatu izan dituen jolasak oso positibotzat jo dira.</p> <p>BAKILLAK: Atsobakarreko bakillek publiko nahiko gazte eta murrizta mugitzen dute azken urteetan. Beste planteamendu bat egin beharko litzateke ekintza honen inguruan, duen kostua ere kontutan izanik. Adibidez: Palomo Linares Elkarte Taurinoak, harri-kartoizko zezen buruekin kale Nagusia, Hipodromo etorbidea eta Geltoki kalean zehar, haur eta gazteentzako entzierroa egitea proposatzen du.</p>
<p>Familiak</p>	<p>MUSIKA: gauetako kontzertuak gazteek gehiago gozaten badituzte ere, arratsalde inguruan erromeriak ere kaleak izugarri girotuko lituzke, eta familia osoak kalean dauden momentua izanik, elkarrekin gozatu daiteke. 19.00etatik 21.00etara, eta afalostean erromeriak beste pixka bat jarraitzea proposatzen da.</p>
<p>Pertsona helduak</p>	<p>BOLO ETA TOKA ERAKUSTALDIA: Ostadarrek urtero Micehlingo bolatokian antolatzen du. Kalean egingo balitz, Okendo plazan edo, jubilatutako bereziki, baina herritarrak orokorrean gehiago animatuko lirarteke, bai ikustera, bai parte hartzera.</p> <p>ZUMABURU ETA ANDATZA PLAZAKO BERBENAK: mantendu behar dira, haien publikoa baitute; baina</p>





talde txikiagoak, aurrekontu gutxiagokoak beharko lukete izan (mugitzen duten jende kopurua ikusirik), eta batez ere dantzagarriak diren doinuak jotzen dituztenak. Euskaraz abestea ere baloratzen da. Dantzaldi hauek erdigunetik at mantendu beharko lirateke, publiko oso konkretu bat baitute.